

EUSKARA

URRIA AZAROA ABENDUA 2019



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

**B**ilbao

## Inausteko garaia. Collage tailerra

Susana Blascoren proiektua

Susana Blasco diseinatzaile grafiko, ilustratzaile eta collage-egileak collage analogikoko teknikei buruzko tailer teoriko-praktikoa proposatu du, [Fatxada Proiektua](#). Diseinua, [ilustrazioa eta komikia](#) proiektuaren esparruan.

*Inausteko garaia* lanean teknika horretara hurbiltzen da, esperimentaziotik, gogoetatik eta jolasetik abiatuta. Era askotako ariketak egiten dira hipotesi desberdinak aintzat hartuta, eta bereziki azpimarratzen da baliabide hori erabiliz ideiak eta kontzeptuak nola jorratu eta ilustratu. Teknika errazenetatik urratzaileenetara, geometriari, Dadaismoari, mihiztaketari edo collage esperimentalean barrena joz. Hori guztia antzinako aldizkari eta argazki pila esku artean hartuta. Beste alde batetik, ibilbide teoriko bat osatzen da, collagearen historiari eta baliabide hori erabili duten artistei eta mugimendu nagusiei buruzko irudiak proiektatuta. Tailerreko helburu nagusia da itxuraz erabilerraza den teknika baten ezin konta ahala aukera sortzaile, formal eta estilistikoak aurkitzea, eta proiektu grafikoetan eta artistikoetan nola erabili ikatea.

////////////////////////////////////

Azaroak 13 > 15  
Asteazkena > Ostirala

18:00 - 20:00

Mediateka. Medialab

Helduentzat  
Gehienezko partehartzaile  
kopurua: 20

30€ / 25€ Az Txartelarekin  
Izen-ematea:  
[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

---

**SUSANA BLASCOK** *No rain, no gain* proiektua du erakusgai Arriquirbarreko fatxadan, aurkitutako argazkiak ebakiz eta fotograma eran berriz moldatuz osatutako hiru collageko triptikoa, euri-intentsitate desberdinekin jariatzen den diskurtsoa sortzen duena. (Informazio gehiago 24. orrialdean)

---

